

NOLA ERABILI

6. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan lau atal nagusi bereizi ditugu.

NOREN -jabego-genitiboa-

08:10

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

TXANGOIA

11:47

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Marrazki bat egin. Marrazkia egiteko, honako pauso hauek emango ditugu:

- Laukote bakoitzeko partaide bat aukeratu marrazkia egiteko; eta, orrialde zuri batekin, aparteko mahai batera joan dadila eskatu.
- Gero, geratu den hirukoteko bakoitzari argazki bana eman —aparte dagoen kideak ez du argazkia ikusi behar—.
- Ondoren, hirukoteko partaideek hitzez argazkia deskribatuko diote aparte dagoen kideari; eta, hark, entzuten duenaren arabera, marrazkia osatu behar du.
- Azkenean, argazkiaren antz handiena duen marrazkia zeinek egin duen erabaki.

-ren + -ren + -ren ...

14:17

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-ren + bat.

15:35

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

ATAL DRAMATIKO TXIKIAK

Gidoiak irakurri letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

Gidoien argudioaren laburpena egin. Hau da, gidoien argudioak modu laburrean idatziz eman, haietan gertatutakoaren zergatiak argi agertuz.

Kasu ez-gramatikalak

NOREN -jabego-genitiboa-

Noren deklinabide-kasuak izenlagunak sortzen ditu. Izenlagun horiek, adjektiboak bezala, izena zehazteko eta mugatzeko erabiltzen dira.

Aitaren laguna dator. Pitiren semeak darama.

NOREN kasua ez da inoiz bakarrik erabiltzen; beti, beste hitz baten laguntza behar izaten du. Beste hitz hori deklinatu egin daiteke.

Eguzkiaren argia.

Eguzkiaren argiarekin.

Eguzkiaren argiaz.

Eguzkiaren argiak.

Eguzkiaren argiari.

NOREN kasua mugagabea bada honela deklinatzen da:

MUGAGABEA -(r)en

Hiru gizonen lana da.
Zenbait ardiren beharra daukat.
Neska askoren iritzia entzun dut.

Mugatu singularra bada hitzak singularreko artikulua darama:

MUGATU SINGULARRA -aren

Gizonaren ahotsa izan da.
Ardiaren hankak dira.
Neskaren lagunak ekarri du.

Mugatu plurala bada hitzak pluraleko artikulua darama:

MUGATU PLURALA -en

Gizonen jantziak tristeak dira.
Ardien balakek esnatu naute.
Nesken poza handia da.

NOREN kasuko galdetzaileak hauexek dira:

NOREN NORTZUEN ZEREN ZEINEN ZEINTZUEN ZENBATEN

NOREN kasuko erakusleak hauexek dira:

HONEN HORREN HAREN HAUEN HORIEN HAIEN

NOREN kasuko pertsona-izenordeak hauexek dira:

NIRE HIRE HAREN GURE ZURE ZUEN HAIEN

MIKEL Aizu, Oihane, noren ardura da Hezkuntza Euskal Herrian?
OIHANE Eusko Jaurlaritzarena.

Eusko Jaurlaritzarena.

OIHANE Liburu hau norena da?
MIKEL Liburu hori Nerearena da.

Nerearena.

OIHANE Eta koadro hau?
MIKEL Koadro hori nirea da.
OIHANE Eta euritako hau?
MIKEL Euritako hori... ez dakit. Ez al da zurea?
OIHANE Ez, nirea ez da. Nerearena izango da.

Nirea, zurea, harena, gurea, zuena, haiena

TXANGOA

Oihane eta Mikel mendira joateko plana prestatzen ari dira.

OIHANE Lekua ederra da; e, Mikel?

MIKEL Bai, oso ederra. **Belarraren** kolore berdea, **zuhaitzen** hostoak...

OIHANE Errekako **uraren** ur gardena

MIKEL Isiltasuna, lasaitasuna... Aizu, Oihane, **zureak** al dira argazkiak?

OIHANE Ez, ez dira **nireak**. **Anderrenak** dira.

MIKEL Anderrek egin al ditu?

OIHANE Bai, Anderrek. Ederrak dira, ezta? Niri biziki gustatzen zaizkit.

MIKEL Bai, oso ederrak dira. Niri ere oso gustatzen zaizkit.

OIHANE Begira, ikusten dituzu han goian, mendi horren **gailurraren** ezker aldean, pago handi horiek?

MIKEL **Mendiaren** ezker aldean..., bai, bai ikusten ditut.

OIHANE Han, **pagoen** artean, etxe txiki bat dago. Eta **etxearen** ondoan iturri bat.

MIKEL Primeran. Etxea irekita ala itxita egoten da?

OIHANE Irekita egoten da. Etxe horretan artzain bat bizi da.

MIKEL Euria egiten badu, **artzainaren** etxean sartuko gara.

OIHANE Bai, nik ezagutzen dut artzaina. Nire gelako **baten** osaba da. Dionisio deitzen da.

MIKEL Zure gelako baten osaba?

OIHANE Bai, **Harkaitzen** osaba. Ezagutzen duzu Harkaitz.

MIKEL Bai ezagutzen dut. Harkaitz Biñako, ezta?

OIHANE Harkaitz Biñako, bai. **Harkaitz Biñakoren** osaba da artzaina.

MIKEL Nik ere ezagutzen dut Harkaitz, eskubaloi taldekoa da.

OIHANE Eskubaloi taldekoa?

MIKEL Bai. Aizu, Oihane, ni prest nago joateko. Dena dela, euria egiten badu, ez noa.

BERRIKUSTE AZKARRA

Gogoratu jabego genitiboa lantzen ari garela, jabetza adierazten duela eta *-en* kasu-atzizkiak gauzatzen dela.

OIHANE Lekua ederra da; e, Mikel?

MIKEL Bai, oso ederra. **Belarraren** kolore berdea, **zuhaitzen** hostoak...

MIKEL Isiltasuna, lasaitasuna... Aizu, Oihane, argazkiak **zureak** al dira?

OIHANE Ez, ez dira **nireak**. Anderrenak dira.

OIHANE Begira, ikusten dituzu han goian, **mendi horren gailurraren ezker aldean**, pago handi horiek?

MIKEL Euria egiten badu, **artzainaren etxean** sartuko gara.

-REN + -REN + REN + REN..

Badakigu NOREN kasua ez dabilela inoiz bakarrik. Beti doa hitz baten Aurretik; eta, hitz hori kentzen badugu, hitzari dagozkion kasu-markak NOREN kasu-markari erantsiko zaizkio.

**Josuren etxea. Josurena.
Aitorren liburuetan. Aitorrenetan.**

Batzuetan, noren kasuaren atzean dagoen hitza ere NOREN kasuan deklinatua dago.

**Ardiaren begietan.
Noren begietan?
Ardiarenetan.**

Horraino, ulertzeko moduko esaldia da.

**Aitaren ardiaren begietan.
Noren ardiaren begietan?
Aitarenarenetan.**

Horrela esanda oso zaila da ulertzea. Horregatik, hobe esaten badugu:

Aitaren ardiarenetan.

Beraz, gauza bat da lege gramatikalak ahalbidetzen duena; eta, beste bat, lege horiek erabiltzeko modua.

-REN + BAT

NOREN kasuak, *bat* edo *batzuk* zenbatzaileekin batera, zehaztu gabeko kopurua adierazteko esapideak sortzen ditu. Esaterako, *Egunen baten etorriko naiz pozez kantari*.

- MIKEL Kalera noa, egunkaria eroatera.
- NEREA Aizu, Mikel, ekarri **aldizkariren bat** ere.
- MIKEL **Aldizkariren bat?** Baina, zein aldizkari nahi duzu?
- NEREA Edozein aldizkari, berdin zait.
- MIKEL Ongi da, ongi da, ekarriko dizut aldizkariren bat.
- NEREA Mikel, hozkailua hutsik dago.
- MIKEL Eta?
- NEREA Ba, erosketak egin behar direla. Ekarri **gauza gozoren bat** bazkaltzeko.
- MIKEL Gauza gozoren bat bazkaltzeko.
- NEREA Bai, mutil, ez dakit... gauza gozoren bat. Bururatuko zaizu.
- MIKEL Hara! Oraintxe bururatu zait. Natur zientzietako lana egin behar dut. Uf! eskerrak gogoratu naizela. Gelara noa.

Zenbait esapidetan NOREN kasua agertzen da:

OIHANE Mikel, lortu ditut Barrikada ikusteko sarrerak.
MIKEL Benetan? Baina nola?
OIHANE Julenek eman dizkit.
MIKEL Julenek? Sinesteko ere! Zenbat aldiz eskatu dizkiozu?
OIHANE Hogei aldiz bai, gutxienez.
MIKEL Ekinaren ekinez lortu dituzu, beraz.

Pozaren pozez liburuak ahaztuta alde egin dute.

Pozaren pozez.

Ekinaren ekinez.

Zenbait esapide elipsiaren ondorioz sortu dira.

Eroarena egin.	Eroaren planta egin.
Astoarena egin.	Astoaren planta egin.
Kristorenak esan.	Kristoren astakeriak esan.
Geureak egin.	Geure azkenak egin.

Asmatu goiko esapideentzat adibide zehatzak. Esaterako:
Norbaitek, ura eta olioak nahas daitezkeela esaten duenean, *kristoren astakeria*
esaten ari da.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Berrikuste modura genitiboz jositako esaldi bat botako dizuet. Entzun
adi: Zuen irakaslearen aitaren anaiaren emaztearen alabaren ahizparen lehengusua
da zuen irakaslea. Egia ala gezurra?

Aitona <> Amona

Aita <> Ama

Anaia <> Emaztea

Irakaslea

Alaba + Ahizpa

Lehengusua

Zuen irakaslearen aitaren anaiaren emaztearen alabaren ahizparen
lehengusua da zuen irakaslea. Egia da, beraz. Jolasa izan den neurrian ongi egon
da, baina, gogoratu lehenxeago esan duguna: gauza bat da lege gramatikalak
ahalbidetzen duena; eta, beste bat, lege horiek erabiltzeko modua.

NORENTZAT -xedezko destinatiboa-

NOREKIN -soziatiboa-

NORENGATIK -motibatiboa-

03:47

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

KANPOAN USO, ETXEAN OTSO

07:06

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Iritzien txokoa. Gidoiaren gaiari buruz mintza daitezen eskatuko diegu laukoteei, iritziak bateratzeko. Hori egin ondoren, iritziak idatzi egingo dituzte koaderno batean. Azkenean, laukote bakoitzak bozemale bat aukeratuko du, laukotearen iritzia beste gelakideen aurrean azaltzeko. Bukatzeko, batzuen eta besteen iritzien gainean mintzatuko dira.

NORENGAN -inesiboa-
NORENGANDIK -ablatiboa-

09:48

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

NORENGANA -adlatiboa-
NORENGANATZ -hurbiltze-adlatiboa-
NORENGANAINO -muga-adlatiboa-

13:13

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

USTEAK ERDIA USTEL

14:49

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Iritzien txokoa. Gidoiaren gaiari buruz mintza daitezen eskatuko diegu laukoteei, iritziak bateratzeko. Hori egin ondoren, iritziak idatzi egingo dituzte koaderno batean. Azkenean, laukote bakoitzak bozemale bat aukeratuko du, laukotearen iritzia beste gelakideen aurrean azaltzeko. Bukatzeko, batzuen eta besteen iritzien gainean mintzatuko dira.

NORENTZAT -xedezko destinatiboa-

NORENTZAT, xedezko destinatiboa. NOREN, jabetza-gehitiboaren markari *-tzat* atzizkia erantsiz eratzen da xedezko destinatiboa.

Marianorentzat baserria eta Karmelerentzat abereak.

NORENTZAT eta NORENTZAKO oso ondo bereizi behar dira.
NORENTZAKO izenlaguna da; beraz, izen baten aurrean joan behar du, beti.

**Gazteentzako sariak autoz datoz.
Hogei sari ekarri ditugu gazteentzat.**

NOREKIN -soziatiboa-

NOREKIN, soziatiboa. NOREKIN kasua ere noren kasutik dator.
Soziatiboa eratzeko nahikoa da amaierako *-n* kendu eta *-kin* atzizkia gehitzea.

Eta norekin eta zeinekin, Praisku zaharraren alabarekin.

Euskalkien arabera, kasu honen aldaera hainbat erabiltzen dira. Bizkaieraz NOGAZ kasua erabiltzen da.

-NOGAZ zoaz herrira?
-Nereagaz.

Zubereraz, ordea, NOREKILA egiten dute.

-NOREKILA zoaz herrira?
-Lagunekila.

NORENGATIK -motibatiboa-

Deklinabide kasu hau aurrekoak bezalaxe, NOREN kasuan oinarritzen da. Motibatibo hau eratzeko noren markari *-gatik* atzizkia gehitu baino ez da egin behar.

Zugatik ez balitz bizitzak bost axola niri.

Zugatik esan dut, bai. Izan ere, askotan, izenordainetan eta izen berezietan, NOREN kasu-marka ezabatu egiten da.

niregatik = **nigatik**
hiregatik = **higatik**
harengatik = **hargatik**
guregatik = **gugatik**
zuregatik = **zugatik**

Begoñarengatik = **Begoñagatik**
Ikerrengatik = **Ikerгатik**
Arantzarengatik = **Arantzagatik**

Forma laburtu horiek besteak bezain erabiliak dira.

KANPOAN USO ETXEAN OTSO

Nereak kapela bat jantzi du. Mikeli ez zaio gustatzen kapela. Serio dago.

MIKEL Nerea, mesedez! Kendu burutik kapela hori! Ez duzu pentsatuko zurekin aterako naizenik kapela barregarri hori badaramazu. Zer nahi duzu: zuregatik denen ahotan ibiltzea, ala?

OIHANE Ez zaizu gustatzen? Niri gustatzen zait.

MIKEL Niri gustatzen zait, niri gustatzen zait. **Zurekin** ez dago ezer egiterik. Ez daukazu ez gusturik ez ezer. Kendu kapela hori oraintxe bertan!

OIHANE Aski da, Mikel. Gaur ere haserretu egin behar al dugu?

MIKEL Hori zeure kontua da; **nirekin** joan nahi baduzu, kendu kapela hori! Gehiago esango dizut ez hurbildu niregana kapela horrekin!

Nereak alde egiten du.

Mikel eta Nerea kapelarik gabe etxetik ateratzen dira.

MIKEL Alaitu aurpegi hori! Jendea begira dago-eta! Zer uste duzu pentsatuko dutela aurpegi **horrekin** bazoaz?

Patxi agertzen da. Mikelek diosala egiten dio alaiki.

MIKEL Kaixo, Patxi. Zer moduz?

PATXI Kaixo, Oihane. Kaixo, Mikel. Udaletxera noa. Pozik ikusten zaituztet. Loteria tokatu zaizue, ala?

MIKEL Pozik gaude, bai. Gu, beti pozik. Bizitzari aurpegi alaiz begiratu behar zaio.

PATXI Hori, hori, Mikel, hainbeste atsekabetu eta depresiboren artean, uharte bat zarete. Zuek bezalakoengatik ez balitz, akabo mundua!

Euskal deklinabidearen ezaugarrietako bat bizidun eta bizigabeen arteko bereizketa da. Izan ere, izen bizidunekin, pertsona eta animalia izenekin, leku denborazko kasuen ordean, beste kasu batzuk erabiltzen dira. Ikus dezagun.

NORENGAN-NON

NORENGANDIK-NONDIK

NORENGANA-NORA

NORENGANATZ-NORANTZ

NORENGANAINO-NORAINO

Bizigabe horiek hurrengo bideoan aztertuko ditugu. Bideo honetan bizidunak ikusiko ditugu. Errotuluan ikusi duzuen bezala, kasu guztiek NOREN kasu-marka eta *-gan* bizidun adierazgarria daukate. Bukaeran bakoitzak bere atzizkia eranstean dio.

NORENGAN -inesiboa-

NORENGAN. Inesiboa. NOREN, jabeago-genitiboa gehi *-gan*.

Lehendakariak konfidantza osoa dauka zuregan.

Esanahiari dagokionez, **NON** kasuaren baliokidea da; baina, **NON** ez bezala, **NORENGAN** bizidunekin erabiltzen da.

Maiz, euskara mintzatuan batez ere, singularrean, izenordainetan eta izen Bereziatan, **NOREN** kasu-marka ezabatu egiten da.

niregan = nigan
hiregan = higan
guregan = gugan
zuregan = zugan

amarengan = amagan
semearengan = semeagan
Martarengan = Martagan

Batzuetan, **NORENGAN** kasua bizigabeekin erabiltzen da. Esaterako:

Konfidantza osoa dut herriarengan.

NORENGANDIK -ablatiboa-

NORENGANDIK. Ablatiboa. NOREN, jabego-genitiboa gehi *-gandik*.

Gailurra urrun dago **guregandik**.

Esanahiari dagokionez, NONDIK kasuaren baliokidea da; baina, NONDIK ez bezala, NORENGANDIK bizidunekin erabiltzen da.

Maiz, euskara mintzatuan batez ere, singularrean, izenordainetan eta izen berezietan NOREN kasu-marka ezabatu egiten da.

niregandik = nigandik
hiregandik = higandik
guregandik = gugandik
zuregandik = zugandik

amarengandik = amagandik
semearengandik = semeagandik
Martarengandik = Martagandik

Euskal Herriko Iparraldera joaten bazarete, NORENGANDIK eta NOREN BAITARIK aldaerak entzungo dituzue.

Nondik atera da zurrumurru hori? **Bitorrengandik**. **Bitorrenganik**.

Zuengandik ez dut ezer espero. **Zuetarik** ez dut ezer espero.

Beraz, bizidunekin *-en* gehi *-gandik*. Ikus ditzagun adibide batzuk.

MIKEL Proiektua ona da, baina nork emango digu dirua?
NEREA Albertori eskatu diot.
MIKEL Albertori? Nik ez dut ezer espero **Albertorengandik**.
NEREA Eta **Mirenengandik** asko espero duzu, ala?
MIKEL Beno, Miren nire laguna da.
NEREA Eta Alberto, nirea.

NORENGANA -adlatiboa-
NORENGANATZ -hurbiltze-adlatiboa-
NORENGANAINO -muga-adlatiboa-

NORENGANA, NORENGANATZ eta NORENGANAINO adlatiboak dira. NORENGANA adlatiboa, NORENGANATZ hurbiltze-adlatiboa eta NORENGANAINO muga-adlatiboa.

Esanahiari dagokionez, NORA, NORANTZ eta NORAINO kasuen baliokideak dira; baina, NORA, NORANTZ eta NORAINO ez bezala, NORENGANA, NORENGANATZ eta NORENGANAINO bizidunekin erabiltzen dira.

Bizidunak: NORENGANA, NORENGANATZ, NORENGANAINO
Bizigabeak: NORA, NORANTZ, NORAINO

Maiz, euskara mintzatuan batez ere, singularrean, izenordainetan eta izen berezietan NOREN kasu-marka ezabatu egiten da.

niregana = nigana
nireganantz = niganantz
nireganaino = niganaino

amarengana = amagana
amarenganantz = amaganantz
amarenganaino = amaganaino

NORENGANA deklinabide-kasuak zenbaitetan *-ko* atzizkia hartzen du, NORENGANAKO izenlaguna sortzeko.

Nerearenganako maitasuna handia da.
Harenganako joeraitsuak galduko du Mikel.

USTEAK ERDIA USTEL

Oihane atari batean dago. Atariko atezain elektronikoa jo du.

OIHANE Kaixo, Mikel, Oihane naiz. Aizu, non dago Nerea?

MIKEL Nerea? A! Uste dut Donostiara joan dela **amarengana**. Igo.

OIHANE Donostiara? **Amarengana?**

MIKEL Bai. Badakizu ama ospitalean dauka.

OIHANE Egia. Lastima! Agiri garrantzitsua daukat **Nerearentzat**.

MIKEL Agiri garrantzitsua? Banoa.

Oihanek itxaroten du. Mikel agertzen da.

OIHANE Beraz, Donostiara joan da Nerea.

MIKEL Beno, hori uste dut nik.

OIHANE Uste duzu? Eta zergatik uste duzu? Nereak esan al dizu Donostiara doala?

MIKEL Beno, ez, Nereak ez dit esan. Patxi Donostiara joan da eta nik pentsatu dut...

OIHANE Zuk pentsatu duzu? Beraz, ziur ez dakizu; agian joan da, agian ez da joan.

MIKEL Nik uste dut joan dela. Patxi eta Nerea oso lagunak dira eta.

OIHANE Eta orain zer egingo dut? Agiri hau eman behar diot Nereari. Oso garrantzitsua da.

MIKEL Goazen **Martinengana**. Martin ere Donostiara doa, bere **aitarengana**. Martinek ere aita ospitalean dauka.

OIHANE Martin? Ez al da apur bat kaskarina?

MIKEL Hala ematen du, baina, serio hitz egiten badiozu serio erantzungo dizu. Nik badut konfiantza **berarengan**.

OIHANE A zer-nolako lana! Lehenengo, Martinengana joan, Martini gauza serioa dela azaldu, ospitalean Nerea bilatzeko eskatu...

NEREA Kaixo, bikote, zer egiten duzue hemen? Zer esan behar diozue Martini?

OIHANE Eskerrak hemen zauden, Nerea. Eskerrak! **Zureganaino** nola iritsi pentsatzen ari ginen. Donostian zinelakoan geunden, **amarengana** joanda.

NEREA **Amarenean** egon naiz, bai, baina hemen, bere etxean. Herenegun etorri zen.

MIKEL Nik uste nuen...

OIHANE Nik uste nuen, nik uste nuen...

Tori, Nerea, agiri hau jaitsi dut Internetetik. Seguru nago interesatuko zaizula.

NEREA Uaohhh! Onartu naute! Gorputz Hezkuntzako irakasle egin naute.

NEREA Banoa agiria sinatzera eta eramatera. Gorde erosketak.

Nereak alde egiten du.

OIHANE Nik uste dut Donostian dagoela. Nik uste dut amarengana joan dela. Nik uste dut, nik uste dut, uste dut...

Oihane badoa. Mikeli mozolo aurpegia jarri zaio.

Etxeek, kontsultek eta bulegoek bizidunen *-gan* ezaugarria baliogabetzen dute. Ikus dezagun

Medikuaren kontsultan dago. Medikuarenean dago.

Medikuarengan itxaropen handia du

Gurasoen **etxetik** ekarri du.

Gurasoen**etik** ekarri du.

Gurasoengandik jaso du berria.

Abokatuaren **bulegora** eraman du. Abokatuare**nera** eraman du.

Abokatuarengana jo du laguntza eske.

Hainbatetan, noren baitan esapidea NORENGAN kasua baino gehiago erabiltzen da.

Mikel oso urduri ikusten dugu. Bere onetik aterata. Oihane agertzen da.

OIHANE Ez dago bere baitan.

Ez dago bere baitan.
Bere onetik aterata dago.

Mikelek mahai gainean ipinitako dirua desagertu da.

MIKEL Nik hemen utzi dut dirua. Orain nork bere baitan nahi duena pentsa dezala.

Nork bere baitan.
Nork berekiko.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com